

BIDEGI S.A.ri

BALIOGABETU DITUZTEN 7/2016 ETA 6/2018 FORU ARAUEN BIDEZ KOB RATUTAKO DIRU KOPURUEN ITZULTZEA

..... jaunak, adin nagusikoak,ko bizilagunak,
nortasun agiri zenbakia duenak, eta
..... enpresaren izenean, zera adierazten du:

I.- matrikula zenbakia duen ibilgailuaren jabea naizela
eta sozietatearekin telepeaje zenbakia daukadala

II.- 2021eko otsailaren 18an 227/2021 epaia eman duela Auzitegi Goreneko
administrazioarekiko auzien salak (bigarren sekzioa); atzera bota dituela Batzar Nagusiek eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako 4191/2018 kasazio-errekurtsoak eta, beraz, 7/2016 for
araua bertan behera utzi. Epaia horretan, adierazten da berretsi egiten zela Euskal Autonomia
Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak Gipuzkoan A15 eta
N1 autobidearen tarte jakin batzuk erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasaren araudiari
buruz emandako kontrako epaia, hau da, bidesarien araudia deuseztatzen zuen epaia
berretsi zuen Gorenak.

III.- Auzitegi Gorenak, 2021eko maiatzaren 13an, ez duela onartu Euskal Autonomia Erkidegoko
Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 5eko 100/2020 Epaiaaren aurka aurkeztutako kasazio-
errekurtsoa. Epaia horretan, EAEko auzitegi nagusiak baliogabetu egin zuen azaroaren 12ko
6/2018 Foru Araua, hain juxtu 2019ko maiatzaren 14tik aurrera aipatutako bideetako
kanonen kobrantza arautzen zuena.

IV.- Bi arau horiek baliogabetu direnez, BIDEGI, S.A.k itzuli egin behar ditu arauak martxan egon
diren tartean tasa horientatik kobratutako zenbatekoak, eta, horretarako, egiten da
erreklamazio-eskaera hau.

Niri dagokidanez, BIDEGI, S.A.k itzuli beharreko diru-kopurua eurokoa da,
eskaerarekin batera atxiki den eranskinean ageri denez.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dut, behin abenduaren 15eko 7/2016 Foru Araua
eta azaroaren 12ko 6/2018a deusezak izanda, Zuzenbidearekin bat egin gabe kobratutako dirua
itzultzeko erreklamazio idazki hau aurkeztutzat jo dezazula, ontzat hartu, eta, horrenbestez,
BIDEGI, S.A.k erreklamaziogileari euroko zenbatekoa itzuli diezaiola, gehi dagozkion
legezko interesak.

.....n, 2021ekorenn.

Sinatua:

Oria etorbidea 10, 406. bulegoa
20160 Lasarte-Oria
T: 943 364 092 | F: 943 363 262
gipuzkoa@hiru.org
www.hiru.org

